

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Genero-indarkeria

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Genero-indarkeria

Heziketa-modulu hau **TERRE DES FEMMES** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	4
3. Gako-hitzak	4
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	5
II - atala: Jarduerak	6
1. jarduera: <i>Genero-indarkeriaren inguruko bideo-proiektzioa</i>	6
• Testuingurua	6
• Gidoia	6
• Jarraibideak	7
2. jarduera: <i>Genero-indarkeriaren inguruko ikerketa</i>	8
• Testuingurua	8
• Gidoia	8
• Jarraibideak	9
3. jarduera: <i>Non nago ni?</i>	10
• Testuingurua	10
• Gidoia	10
• Jarraibideak	12
4. jarduera: <i>Segurtasuna nire bizitzan</i>	13
• Testuingurua	13
• Gidoia	13
• Jarraibideak	14
Saioaren egitura	16
Moduluen zerrenda	17

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Mundu osoko haurrek eta nerabeek min- eta indarkeria-mota desberdinak pairatzen dituzte eta neskek bereziki jasaten dute genero-indarkeria.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak egindako inkesta baten arabera, Europar Batasuneko emakumeen % 35ak indarkeria sexuala, psikologikoa edo fisikoa jasan du 15 urte bete aurretik eta 3 emakumeetatik batek indarkeria fisikoa edota sexuala pairatu du 15 urte bete ostean¹.

Genero-indarkeriaren barruan sartzen dira honakoak: presio psikologikoa, abusu fisikoa edo sexuala, abusu sozioekonomikoa, genero-diskriminazioa eta ustiapena. Horrek esan nahi du indarkeriak ez duela zertan fisikoa izan.

Hauek dira genero-indarkeriaren adibide batzuk: emakumeen genitalen mutilazioa; ezkontza behartua, ezkontza goiztiarra eta haurren ezkontza; emakumezkoen eta nesken trafikoa eta etxeko indarkeria eta bikotekidearen indarkeria.

“Genero-indarkeria” adierazteko, askotan, “emakumeen aurkako indarkeria” esaten da. Hala eta guztiz ere, lehenengoak, hau da, genero-indarkeriak horrelako egintzen genero-dimentsioa azpimarratzen du, hau da, emakumezkoek gizartean duten menpeko estatusaren eta indarkeriarekiko duten ahultasun handiagoaren arteko lotura.

Emakumezkoen zein nesken aurkako indarkeria-forma guztiak sartzen dira genero-indarkeriaren kontzeptuaren barruan. Aurrekoa gorabehera, genero-indarkeria mota guztien biktimak ez dira soilik emakumeak eta neskak. Izan ere, garrantzitsua da adieraztea gizonezkoek eta mutilek ere pairatzen dutela genero-indarkeria, sexu-indarkeria barne. Gehienetan, erasotzaileak ere gizonezkoak dira.

2017tik aurrera, ohikoa da emakumezkoen aurkako genero-indarkeriari buruz hitz egitea, hori baita emakumezkoek gizonezkoekiko duten posizioa menderatzeko eta estereotipo-izaerako rola mantentzeko erabiltzen dugun funtsezko bitarteko sozial, politiko eta ekonomiko bat.

Genero-indarkeriaren inguruko modulu honen asmoa da nerabeak sentsibilizatzea genero-indarkeriarekin eta diskriminazioarekin lotutako gaien inguruan eta genero-indarkeria aitortzeko eta horri modu etiko batean aurre egiteko gaitasuna izan dezaten bermatzea.

¹ European Union Agency for Fundamental Rights (Funtsezko Eskubideetarako Europar Batasuneko Agentzia), *Violence against women: an EU-wide survey – main results*, (Emakumeen aurkako indarkeria: inkesta EBeko eskalan – emaitza nagusiak), 2015. doi:10.2811/981927.

Garrantzitsua da genero-indarkeriaren, abusu-dinamiken, arrisku-faktoreen eta ondorioen izaeraren zein irismenaren inguruko ezagutza garatzea. Gainera, “errua biktimari leporatzearen” auzia kudeatu eta kontuan hartu behar da: genero-indarkeriaren esparruan, errua biktimari leporatzen zaionean, arreta biktiman –sarritan emakumea– eta haren jarreran jartzen da, emakume horren aurkako indarkeriaren egiturazko kausetan eta desberdintasunetan jarri beharrean.

Haur gehienek ez dute genero-indarkeria aitortzen ikasten eta, askotan, oharkabean pairatzen dute indarkeria hori. Hain zuzen ere, horregatik da derrigorrezkoa modulu hau hezkuntza-programan.

2. Grai nagusiak

- Mugak: moduluak jorratzen duen gaietako bat da norberaren mugez jabetzearena.
- Genero-indarkeriaren forma desberdinak.
- Genero-diskriminazioa: parte-hartzaileek genero-diskriminazioa nola, non eta noiz hasten den ikasten dute.

3. Grako-hitzak

Genero-indarkeria • Genero-diskriminazioa • Generoa
Genero-berdintasuna • Genero-arauak
Gizarte-arauak • Estereotipoak

4. Ikasketa-xedeak

- Definitu zer esan nahi duen genero-indarkeriak: sentsibilizatu gazteak botere-harremanei eta indarkeria motei buruz.
- Indarkeria-generoarekin lotura duten oinarrizko kontzeptuak deskribatu (hala nola indarkeria, abusua, boterea eta abar).
- Genero-indarkeriaren ezaugarri komunak zerrendatzeko gai izan.
- Genero-indarkeriaren kausak identifikatu.
- Genero-indarkeriak izan ditzakeen ondorioak identifikatu.
- Erreakzionatzen ikasi: modulu honetan haurrek eta nerabeek genero-indarkeriaz babesteko prestatuko dira.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ²
1	Genero-indarkeriaren inguruko bideo-proiektzioa	45 minutu	• Ordenagailua edo pantaila • Bideoa (Internet-sarbidearen bidez edo <i>flash</i> batean)	☆☆☆
2	Genero-indarkeriaren inguruko ikerketa	45-90 minutu	• Genero-indarkeriaren forma desberdinei buruzko informazioa duten txartelak. • Aurretik material gehiago deskarga edo inprima daiteke • <i>Denbora gehigarria izanez gero</i>: artaziak, horma-irudiak, oihala, pintzelak, margoa, arkatzak, koloretako papera, postalak.	☆☆☆
3	Non nago ni?	45 minutu	• Zinta • Posizionamendu-jarduerarako prestatutako esaldiak eta eszenak (genero-testuingurua)	☆☆☆
4	Segurtasuna nire bizitzan	90 minutu	• Paperezko arbela • Arkatzak	☆☆☆

² Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Genero-indarkeriaren inguruko bideo-proiektzioa ★★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu

Prestatzea: 5

Egitea: 30

Segimendua: 10



Materialak

☐ Ordenagailua edo pantaila

☐ Bideoa (Internet-sarbidearen edo flash bidez)

→ TESTUINGURUA


Jarduera honetan, genero-indarkeriaren hainbat forma irudikatzen dira. Parte-hartzaileek **genero-indarkeriaren jatorrizko kausak identifikatzen eta indarkeria-forma honen aurrean jarduten ikasten dute.**

→ GIDOIA



A

Lau bideo erakutsiko dizkiegu parte-hartzaileei. Horrez gain, post-itak, paperak eta arkatzak banatuko dizkiegu, parte-hartzaileek modu anonimoan idatz ditzaten bere galderak.



B

Gero, parte-hartzaileek zirkulu bat egingo dute eta eztabaida zuzenduko dugu, parte-hartzaileek genero-indarkeriarekiko lotura komuna uler dezaten. Guztiek adieraz dezakete pentsatzen dutena.



C

Bigarrenik, genero-indarkeriaren definizio bat eman eta eztabaida sortuko dugu, parte-hartzaileak genero-indarkeriaren beste istorio batzuk kontatzera eta adibideak ematera animatuz. Genero-indarkeriaren inguruko beste istorio eta datu batzuk azaldu ahal izango ditugu, parte-hartzaileek genero-indarkeriak Europan duen hedadura uler dezaten³.



D

Amaieran, aukera emango diegu parte-hartzaileei bideoko pertsonaiek genero-indarkeriaren aurrean nola jardun duten eta genero-indarkeriaren bestelako formekin nola jokatu behar den eztabaidatzeko.

→ JARRAIBIDEAK



- Nola sentitu zara bideoak ikustean?
- Mutilek eta neskek bideoarekiko sentimendu desberdinak al dituzte?
- Nola sentituko zinateke bideoan agertzen den egoera horietakoren batean egongo bazina?
- Zer ikasi duzu genero-indarkeriari buruz? Zerk harritu zaitu? Aurretik ez zenekien zerbait agertu al da bideoan?
- Zer egingo zenuke zure lagunen batek genero-indarkeriaren formaren bat pairatuko balu?
- Bururatzen al zaizu genero-indarkeria pairatzen duen lagun horri lagundu diezaiokeen babes-zerbitzurik edo erakunderik? **Oso garrantzitsua: prest izan ukitutako pertsonak jo dezaketen nazio-mailako zein tokiko babes-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen zerrenda.**

³ Ikus, adibidez, hau: <https://eige.europa.eu/gender-based-violence/data-collection>

2. jarduera Genero-indarkeriaren inguruko ikerketa ★★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu (+45)

Prestatzea: 5

Egitea: 20 (+45)

Segimendua: 10



Materialak

☐ Genero-indarkeriaren forma desberdinei buruzko informazioa duten txartelak (ikus, EIGE Genero Berdintasunaren Europako Institutua⁴)

☐ Aurretik material gehiago deskargatu edo inprima daiteke (esaterako EIGEn genero-indarkeriari buruzko argitalpenak edo genero-indarkeriari buruzko artikulua)

Denbora nahikoa izanez gero:

☐ Artaziak, horma-irudiak, oihala, pintzelak, margoa, arkatzak, koloretako papera, postalak

→ TESTUINGURUA

1. bertsioa

Jarduera honekin, parte-hartzaileek aukera daukate **genero-indarkeriaren mota zehatz bat hobeto ezagutzeko**.

2. bertsioa

Aukera dago modu **artistikoan hurbiltzeko genero-indarkeriaren gaira**. Parte-hartzaileek modu artistikoan jorra dezakete genero-indarkeriaren mota zehatza. **Horrek ukitutako norbanakoekiko enpatia sentitzen lagundu dezake**. Halaber, lagungarria izan daiteke artearen bidez genero-indarkeriari aurre egin dioten eta horren aurka borrokatu duten artisten adibide batzuk ematea, besteak beste, hauenak: Hanan Abu-Hussein, Luzene Hill, Jenny Nijenhuis eta Nondumiso Msimanga⁵, eta Yolanda Domínguez, Paula Bonet eta María Luque espainiarrak.

→ GIDOIA


1. bertsioa



Taldeko kideek ezagutzen dituzten genero-indarkeria forma desberdinak bildu eta horren inguruko brainstorming bat egingo dute, eta forma zehatz batzuk hautatuko (hau da, ohikoenak edo garrantzitsuenak iruditzen zaizkienak edo deigarrien gertatzen zaizkienak).

⁴ <https://eige.europa.eu/gender-based-violence/forms-of-violence>

⁵ Ikus: Hanan Abu-Hussein, *The unmarked body* (Markarik gabeko gorputza) (<https://www.unmarkedbody.com/abu-hussein>); Luzene Hill <http://www.luzenehill.com/>; Jenny Nijenhuis eta Nondumiso Msimanga: *SA's Dirty Laundry*, (Saren arropa zikina); online eskuragarri hemen: <https://www.theguardian.com/world/2016/dec/02/dirty-laundry-washing-line-art-highlights-south-africas-epidemic>



Talde txikiagoak sortzeko eskatuko diegu eta talde bakoitzak genero-indarkeria mota bat aukeratuko du hari buruz lan egiteko modu teorikoan.



Aukeratu duten genero-indarkeria motaren inguruko informazioa irakurriko dute eta idatziz laburtuko ikasgelako gainerako taldeei azaltzeko (Zenbateraino da ohikoa indarkeria-mota hori bere herrialdean/beste herrialdeetan/munduan zehar? Zeintzuk dira kausak? Zer nolako aukerak dituzte neskek eta emakumeek horrengandik babesteko?).

OHARRA: Ezin bada 2. bertsioa egin, egunaren amaieran, ikasgelako gainerako kideei aurkeztu beharko zaizkie emaitzak.

2. bertsioa



Denbora gehiago edo beste egun bat izanez gero, parte-hartzaileek genero-indarkeria zehatz hori jorratu dezakete artistikoki, hau da, hori irudikatuz. Amaitzeko, artelanak txostenekin batera aurkez daitezke.

→ JARRAIBIDEAK



1. bertsioa

- Nola sentitu zara genero-indarkeriaren gaia jorratzen?
- Nola sentituko zinateke genero-indarkeriaren formaren bat pairatuko bazenu?
- Zer ikasi duzu genero-indarkeriari buruz? Zer izan da gehien harritu zaituena?
- Bururatzen al zaizu genero-indarkeria pairatzen duen lagun horri lagundu diezaiokeen babes-zerbitzurik edo erakunderik? (*Oso garrantzitsua: prest izan ukitutako pertsonen jo dezaketen nazio-mailako zein tokiko babes-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen zerrenda.*)

2. bertsioa

- Ba al zegoen lehentasunik ikuspegiari dagokionez (teorikoa edo artistikoa)?
- Nola aurkeztu duzu indarkeria-forma hori? Zergatik?
- Zer iruditzen zaizkizu besteen artelanak? Zuzenean ezagutu al duzu irudikatutako indarkeria-mota?

3. jarduera Non nago ni? ⁶ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 30
Segimendua: 10



Materialak

- ☐ Zinta
- ☐ Posizionamendu-jarduerarako prestatutako esaldiak eta eszenak (genero-testuingurua)

→ TESTUINGURUA

Jarduera honetan, genero-indarkeriaren premisak antzematen dira eta horiei aurre egiten zaie. Parte-hartzaileek bere mugak frogatzen dituzte eta taldearen barruko botere-harremanak zehazten dituzte. Gainera, sakonago eztabaidatzen da indarkeriaren inguruan.


→ GIDOIA

Jarduera hau **bi urratsetan** banatzen da: **“Mugak”** eta **“Posizionamendua”**. Neska askok (eta mutil askok) ez dituzte bere mugak ezagutzen. Batzuetan, zaila da kontaktu desagokiari edo ukitzeari aurre egitea, hain zuzen ere, haur batzuek ez zutelako inoiz ikasi mugak jartzen. Adibidez, “ezetz” esaten ikasi behar da, haurrak izebari musurik eman nahi ez badio edo ez badu nahi osabaren altzoan eseri. Hori txikitatik praktikatu behar da. Horrekin batera, garrantzitsua da haurrek ikastea kontua ez dela soilik ezetz esatea, baimen aktiboa ematea baizik.

Mugak



Parte-hartzaileei bi ilara sortzeko eskatuko zaie (ilararen artean 5 metroko distantzia dagoela), bata bestearen aurrean. Orduan, ezkerreko ilara motel hurbilduko da beste aldean dagoen eskuineko ilarara.



Guztiekin esan beharko diote beste ilaran aurrez aurre duten kideari zenbateraino hurbil daitezkeen “Geldi!” oihukatuz. Bigarrenik, eskuineko ilarako parte-hartzaile guztiak aldatuko dira lekuz eta 10 pauso emango dituzte atzerantz.



Horrenbestez, eskuineko ilara ezkerreko parte-hartzaileengana joango da eta, berriz ere, guztiek esan ahal izango diote beste ilaran aurrez aurre egokitutako kideari zenbateraino hurbil daitezkeen (“Geldi!” oihukatuz).



Helburua da bakoitzaren erosotasun-gunea zein den jakitea. Bi moduen inguruko (mugimenduan eta geldian) eztabaida abiaraziko dugu eta bakoitzari bere rolean nola sentitu den galdetuko diogu. Amaieran, parte-hartzaileek aztertuko dute erosotasun-gunea nola aldatzen den pertsona hori hurbileko senide bat, lagun mina, irakaslea edo ezezagun bat denean.

Posizionamendua



Hurrengo pausoa da lurzoruan lerro bat marraztea edo zintarekin egitea: lerroaren mutur batean, “indarkeriarik ez” etiketa jarriko dugu eta beste aldean, aldiz, lurzoruan “indarkeriaren forma serioa” adierazten duen etiketa bat.



Ondoren, guk prestatutako esaldiak edo eszenak irakurriko ditugu eta parte-hartzaileei lerroan edo lerroen artean kokatzeko eskatuko diegu. Parte-hartzaile guztiek hitz egingo dute beren kokapenari buruz eta azalduko dute zergatik uste duten deskribatutako egoera indarkeria kasu bat dela edo ez.



Horren ostean, honako galdera hauetan oinarritutako eztabaida bati ekiten diogu: Zergatik uste dute batzuek eszena bat indarkeria-forma serio bat dela besteek neutrala ikusten duten bitartean?

⁶ Compasitoren 36. zenbakiko egokitutako bertsioa; online eskuragarri hemen: <http://www.eycb.coe.int/compasito/>

→ JARRAIBIDEAK

Eztabaida labur horien ostean, jarduera hau honelako galderekin labur daiteke:



- Nola sentitu zara bi jarduerak egin bitartean?
- Biak gustatu al zaizkizu? Zergatik ez?
- Eroso sentitu al zara?
- Zer ikasi duzu zuri eta zure erosotasun-guneari buruz?
- Zer ikasi duzu besteen erosotasun-guneari buruz? Orain gehiago jabetzen dira horretaz?
- Erosotasun-guneari dagokionez, egon al da alderik mutilen eta nesken artean?
- Nola erantzuten duzu zure erosotasun-gunetik kanpo ateratzen zaituztela ikusten duzunean?
- Zer egin daiteke besteen erosotasun-guneak errespetatzeko eta horietaz jabetzeko?
- Zerk harritu zaitu besteen indarkeriaren iritziei dagokienez?
- Mutilek eta neskek modu desberdinean antzematen al dute indarkeria? Hala bada, zein zentzutan?

4. jarduera Segurtasuna nire bizitzan? ★★



Jardueraren iraupena guztira
45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 30
Segimendua: 10



Materialak
☐ Paperezko arbela
☐ Arkatzak

→ TESTUINGURUA

Jarduera honetan, **indarkeriarekin lotutako genero-desberdintasunak irudikatzen dira** eta beste gai bat jorratzen da: ez dago gazteentzako informazio egokirik pertsonen arteko indarkeriaren benetako izaerari buruz, besteak beste, bikotearen barruko indarkeriari edo *bullyingari* buruz.

→ GIDOIA

Azalduko dugu ariketa honen funtsa dela norbanakoek seguru egoteko eta mantentzeko egin ohi dutenaren inguruan hausnartzea. Sexu bereko taldeetako parte-hartzaileei eskatuko diegu beren zerrendak egiteko eta gero partekatu egingo dituzte, eta beren aurkikuntzak eztabaidatuko.



Parte-hartzaileei azpitaldeak sortzeko eskatuko diegu; sexu bereko taldeak izan beharko dira eta, gehienez ere, talde bakoitzak bost kide izan beharko ditu.



Taldeei eskatuko diegu “seguru egotearen” gaiari buruz pentsatzen dutena partekatzeko eta ideia desberdinak botatzeko; hau da, parte-hartzaileei indarkeria saihesteko eta indarkeriarengandik babesteko egiten dutenaren inguruan pentsatzeko eta partekatzeko eskatuko diegu. Horrez gain, eguneroko bizitzan jasaten dituzten mehatxu-moten inguruan pentsa dezakete.

⁷ Europako Kontseilua: *Gender Matters – A manual on addressing gender- based violence with young people*, (Genero kontuak garrantzitsuak dira – Gazte jendeari eragiten dion genero-indarkeriari aurre egiteko eskuliburua), 126. eszena (bertsio egokitua); online eskuragarri hemen: <http://www.eycb.coe.int/gendermatters/>



Talde bakoitzari eskatuko diote gelan prestatutako lan-gune-etara joateko edo haien artean elkartzeko; 20 minutu emango dizkiegu hausnarketa egiteko eta paperezko arbelean zerrenda egiteko.



Amaieran, paperezko arbelak aurkezteko eta zintzilikatzeko eskatuko diegu taldeei, denak elkarren ondoan, ondo ikusteko aukera ematen duen leku batean. Sexu bereko hainbat azpitalde baldin badaude, haien paperezko arbelak elkarren ondoan jarriko ditugu, gero osoko bilkuran haiei buruz hitz egin eta eztabaidatzeko.

→ JARRAIBIDEAK

Ariketaren eta horren emaitzen inguruko lehenengo iritziak emateko eskatuko diegu. Eztabaidari ekiteko, ideia ona da norbaitentzat taldean sortutako eztabaida harrigarria izan ote den edo bere taldearen zein besteen taldeen lanaren emaitzak harrigarriak iruditu zaizkion egiaztatzea.

Bestalde, hauek dira askotan agertzen diren eta joratu beharreko ohiko emaitzak:

- Normalean, emakumeen taldeek egindako zerrendak zehatzagoak eta luzeagoak dira gizonen taldeek egiten dituztenekin alderatuta eta, horregatik, emakumeen segurtasunerako mehatxu-mota gehiago aipatzen dituzte:
 - › Zer iruditzen zaizu desberdintasun hori?
 - › Zure ustez, zerk eragiten du alde hori?
 - › Sozializazioak ba al dauka horretan zer ikusirik?
- Gizonezkoen zein emakumezkoen taldeek egindako zerrendetan, arreta handia jartzen da ezezagunengandik jasan daitekeen indarkeriaren aurkako neurrietan; hala ere, frogatu egin da gehienetan indarkeria biktimen ezagunek burutzen dutela:
 - › Egindako mehatxuen zerrendek benetan adierazten dituzte mutilek eta neskek, gizonezkoek eta emakumezkoek bere eguneroko bizitzetan jasaten dituzten arriskuak? Zergatik? Zergatik ez?
 - › Erantzuna ezezkoa bada, zeintzuk dira zerrendan falta diren arriskuak?
 - › Zergatik uste duzu ez direla eztabaidan aipatu eta, beraz, ez direla jaso?
 - › Arrisku horietakoren bat identifika dezakezu zure hurbileko testuinguruan? Hala bada, uste duzu taldeek seguru egoteko iradoki dituzten neurriak benetan garrantzitsuak edo eraginkorrak direla?

Azpimarratuko dugu, gizonezkoek ere genero-indarkeria pairatzen duten arren, emakumezkoek sarriago jasaten dutela.

Honako galderak egiten dizkiegu:



- Nola sentitu zara jarduera egin bitartean?
- Zer iruditu zaizu seguru sentitzearen inguruan dauden desberdintasunak antzematea?
- Zergatik uste duzu hurrei eta gazteei arrisku batzuk edo indarkeria-forma batzuk ohartarazten zaizkiela eta beste batzuk ez?
- Noren lana da edo izan beharko litzateke hurrei eta gazteei indarkeriaren eta seguru egoteko neurrien inguruko informazioa ematea?
- Nola lagun lezake gazteriak beste gazteei indarkeriaren eta seguru egotearen inguruko informazio fidagarria eta gomendioak emateko?
- Nola lagun zenezake zuk aldaketa bat bultzatzeko?

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Genero-indarkeria

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

Gender ABC proiektuaren

MODULUEN ZERREND

Modulu
en
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 **Genero-indarkeria**
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

Modulu
en
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua